


Euskal AEko eraikuntza kostuak %0,2 gehitu ziren 2015eko martxoan aurreko hilaren aldean

2014ko martxoaren aldean eraikuntza gastuak %0,5 gutxitu ziren

2015eko martxoan, Euskal AEko Eraikuntza Kostuen Indizea %0,2 gehitu zen, aurreko hilaren aldean, eta urte arteko tasa %0,5 gutxitu, EUSTATen datuen arabera.

Euskal AEko eraikuntzako kostuen indizearen urte-arteko aldakuntza-tasa. (%%)



Aurreko hilaren aldean, lan-eskuaren kostua ez da aldatu (%0,0); lehengaien kostuak %0,3 gehitu dira.

Martxoan Etxegintza eta Obra Zibila azpisektoreek zeinu bereko bilakaera izan zuten lehengaien kostuan. Etxegintzaren atalean %0,2ko igoera aurreko hilaren aldean, eta Obra Zibilarenean %0,6. Bi azpisektore horien urte arteko bilakaeran zeinu bera eta intentsitate ezberdinak ditugu. Etxegintzaren lehengaien kostuak %0,4 merketu ziren, Obra zibilarenak %2,5.

Sektoreak kontsumitutako lehengaien artean urte artean (2015eko martxoa 2014koaren aldean) prezio hazkunderik handienak: *Zurgintza* (%2,1), *Ez-metalezko industria* (%0,9), *Energia elektrikoa eta gasa* (%0,8). Prezio jaitsierarik handienak azken hamabi hiletan: *Petrolio-fintzea* (%-18,0), *Industria kimikoa* (%-2,1), *Kautxu eta plastikoa* (%-1,3).

1. TAULA. EUSKAL AEKO ERAIKUNTZAREN KOSTUEN INDIZEA. ALDAKUNTZA TASAK (p). 2015EKO MARTXOA

	INDIZEA	ALDEAREN %		
		m/m-1	m/m-12	m/abendua
GUZTIRA	102,1	0,2	-0,5	0,6
Eraikinak	102,2	0,2	-0,3	0,5
Obra zibila	101,9	0,5	-1,9	0,7
LEHENGAI	101,2	0,3	-0,7	0,7
Eraikinak	101,2	0,2	-0,4	0,7
Obra zibila	100,8	0,6	-2,5	1,0
LAN-ESKUA	105,4	0,0	0,0	0,0

Oinarria 2010=100

(p) behin-behinekoa

Iturria: Eustat. Eraikuntzako kostuen indizea

Informazio gehiago:

Eustat - Euskal Estatistika Erakundea / Instituto Vasco de Estadística

Donostia-San Sebastián, 1. 01010 Vitoria-Gasteiz

Prentsa zerbitzua: servicioprensa@eustat.eus Tel.: 945 01 75 62

Euskal AEko Eraikuntzako kostuen indizeari buruzko prentsa-ohar gehiago (EEKI)

Euskal AEko Eraikuntzako kostuen indizeari buruzko datu-bankua (EEKI)